

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4236

AGINDUA, 2022ko irailaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, Amorebieta-Etxanoko «CPES Orue Eskola BHIP» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren (Bizkaia) titulartasuna aldatzeko baimena emateko dena.

Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) «CPES Orue Eskola BHIP» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena eskatuz ikastetxe horren titularra den erakundearen legezko ordezkariak abiarazitako espedientea aztertu da.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da eta indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Arau hauek hartu dira kontuan: heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa; Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua; apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta gai horretan aplikatzeak diren gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– «CPES Orue Eskola BHIP» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena ematen da: egun titulartasuna «Pertsonen Garapenerako Ikerketa ta Garapen ITG Taldea» erakundeak dauka eta aurrerantzean «Durangaldeko Ibaizabal Koop. Elk.» erakundeak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxeak zituen betebeharrak eta zamak. Ikastetxea Bizkaian dago, Amorebieta-Etxanoko udalerriko San Miguel de Dudea auzoan, eta 48016765 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– Titulartasun-aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da eta ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 21a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.